

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### LEHENDAKARITZA

## 964

*HUTS-ZUZENKETA, honako ebazpen honena: «Ebazpena, 2018ko otsailaren 7koa, Lehendakari-tzaren idazkari nagusiarena, zeinaren bidez jakinarazten baita telefonista-lanpostua izendapen aske bidez betetzeko deialdia.»*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Testua argitaratzeko agindua eman duen organoak aginduko du zuzen-keta egiteko ere.

Era horretako hutsak aurkitu dira honako testu honetan: 2018ko otsailaren 7ko Ebazpena, Lehendakari-tzaren idazkari nagusiarena, zeinaren bidez jakinarazten baita telefonista-lanpostua izendapen aske bidez betetzeko deialdia. Ebazpen hori 2018ko otsailaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 34. zenbakian. Hori dela-eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

Ebazpenaren azalpenean, 2018/874 (3/1) orrialdean, honela dio:

«16. dotazioa.»

Baina honela esan behar du:

«3. dotazioa.»

Eranskinean, 2018/874 (3/3) orrialdean, honela dio:

«Dotazioa: 16.»

Baina honela esan behar du:

«Dotazioa: 3.»